

Ipar Euskal Herriko Udalen Biltzarra

Batzarra Baionan

GOBERNUAK EUSKAL DEPARTAMENDURIK EZ DUELA NAHI ERRANEZ GUTUNA HELARAZI ZUEN BOUILHAGUETEK

Udal ordezkariak Jospini departamendua eskatu diote, prefetaren presioaren gainerik

■ Udalen Biltzarrak Lionel Jospini Euskal Departamendua galdeginez gutuna bidaltzea erabaki du

■ Gisa berean, Lehen ministroarekin biltzeko eskaera eginen du, 1981ean Deferre Barne ministroarekin egin bezala

■ Prefetak gutuna igorritz ekimena zapuzteko eginiko entseguak ez zuen arrakastarik izan, alderantziz baizik

Hur Gorostiaga / Baiona

IPARRALDEKO Udalen Biltzarra bizi-bizia izan zen atzo Baionan. Udalen Biltzarrak galdeginek, Iparraldeko udalen erabateko gehiengoa Euskal Departamenduaren alde agertu da azken urtean, eta kontsulta horren behin betiko emaitzak agertu eta horren berri emanez, Lionel Jospini gutuna bidaltzeko xedez bildu ziren atzo. Izan ere 159 udaletarik 82 alde agertu dira, 16 kontra eta hiru berdindurik.

Baina ezustekoa sortu zen; izan ere, Daniel Poulou Biltzarreko presindeteak Gilles Bouilhaguet prefetak —Pirinio Atlantiko departamenduan Estatuko ordezkari nagusiak— bezperan helarazitako gutunaren berri eman baitzuen. Gutunean, prefetak orotarazi zuen Lionel Jospinek Madrilen Aznarrekin bildu zenean esana: «Frantziako errealtate administrazioa ukitzeko asmorik ez» zuela, eta halaber Chevenement Barne ministroa, Mayor Orejarekin batera Parisen emandako prentsaurrekoan, Euskal Departamenduaren aurka agertu zela; «hala, gaizki informaturiko auzapez askok borondate onez pausatzeko tentazioa izan dezaketen galderrari aurretik erantzun» diezaiokeela uste du prefetak.

Une batez duda aire bat sentitu bazen ere, bertan bildutakoek udalen ekimena oztopatzeko azken entsegu gisa ulertu zuten. Kikildu orde, alderantziz, indar gehiagor mintzatu ziren Euskal Departamenduaren alde, eskaera Lehen ministroari egitearen alde, eta harekin bilkura bat egitearen alde, 1981 urtean Deferre Barne ministroarekin egin zen bezalaxe. Baina oraingoan emaitza baikorarekin, Jospinek 1995 urteko hauteskunde presidentzialetan Ziburun esana oroitarazi baitzuten



BOB EDMÉ

Jean Espilondo, Didier Borotra, Alain Lamassoure eta Daniel Poulou.

bilkuran zeudenek: alegia, euskal hautetsien gehiengoa Euskal Departamenduaren alde egonen zenean bera ere hala izanen zela.

Biltzarreko administrazio kontseiluak aho batez Lionel

Jospini gutuna bidaltzea eta bertan Euskal Departamendua obratzeko neurriak galdegin beharra azpimarratu zuela zehaztu zuen Daniel Poulouk berak. Frantxua Maitia sozialistak Gobernuak

«erantzun bat eman behar» duela esan zuen, Gobernuarekin pertsonalki bildu beharra azpimarratzeko.

Didier Borotra Miarritzeko auzapezak, Euskal Departamenduaren aurka izanik ere,

gaur egun politikoetarik urrunago gizarte osora zabaldu den eskaera dela onartu zuen. Hala ere, «prefetak idatzi baldin badu, Barne ministroak idatzi» duela adierazi zuen.

Lamassoure haserre, suprefeta isilik

■ GILLES BOUILHAGUET prefetaren gutun edo abisua bere izenean edo ordezkatzaren duen Frantziako Gobernuaren izenean egin izan ote zen galdegia sortu zen atzoko bileran. Izan ere, Pirinio Atlantikoetako prefetak gaiari buruz duen iritzia jakina da aspaldi honetan. Jendaurrean ere adierazi du. Hala, joan den

martxoan Miarritzen egin zen enpresarien konferentzia batean argi eta garbi erran zuen: *Small is not beautiful, l'union fait la force* (ttipia ez da polita, batasunak egiten du indarra).

Alain Lamassoure Angeluko auzapez, distributurua eta europarlamentarioak nahiko urduri hitz egin zuen atzoko bile-

ran, «Gobernua gutaz trufatzen» dela adierazi zuen. «Badira bi urte gai hau eztabaida nagusi bilakatua dela, eta ez dut ulertzen nola Gobernuak bi urte igaro ditzakeen erantzun bat emateko. Niri ez didate sinestazik Euskal Herrian gobernuakide bat egonik, berak ez dakiela Gobernuak egiazki zer pentsatzen

duen gai horretaz», adierazi zuen, Nicole Pery alderdi sozialistako kidea aipatu gabe, baina jakinez justuki 1997ko diputatu hauteskundeetan gai horri esker hautatua izan zela. «Gaur prefetak bi orrialdeko gutuna helarazi digu. Nik, gobernuetan nintzen garaian ez nuen nire iritzia funtzionarioen bidez ematen.

Gutaz trufatzen ari dira eta erran dezatela behingoz», adierazi zuen Alain Lamasourek. Berehala Jean François Pages suprefetari oldartu zitzaion orduan Lamassoure, eta bera Gobernuko ordezkari izanik «egia» erran zezala erregutuzion behin eta berriz. Suprefetak, berriz, ez zuen erantzun nahi izan.